

**BAKAR BIDEAN**

Bakar bidean mintzul ni,  
beeko gai utsak lagarik,  
etsira eziña osoan...  
Zurbil illuna, giz-otso legez,  
datorkit bulzka auzoan.

Ugin zitalak narrastu  
ugarriak oi dau inka,  
ta zii-bedarrak antsia;  
nire arima, aspaldi danik,  
oiuz dago eratzia.

Gizarteko maitzurkeri  
ta biotz-uskeri baltzak  
ondo dakizan gogoak  
ezin al ditu albora bota  
bizkar ditun lor-saldoak?

Neure miñetan jtoa  
—jItera doan zezena—,  
bidez nabil pentsaketan...  
Su-mendia dot biotza blei-blei,  
zauri gabeko penetan.

Zuk ez nozu begiratzen;  
Zuk, Jauna, itxia ete naz?  
Donga jzan ni Zuretako...  
Zure naikuna sarri dot uka,  
baiña, alan be, ene Jainko!

Bakarti ta ezin etsiz  
ibilki, bide zokoan  
Gurutzea dot jdoro...  
ta aren beginan, auspaz nazaia,  
barrua yat poztu oro.

**NEGAR DAGIZU**

Negar dagizu guraripean,  
samur. Zeru-ertz eguna argituz,  
eta zuk —zer dozu?— negarrari.  
Zelai urdin aurrean mamindurik  
orain au igazi ordukoxe,  
agur dagiogun alkari:  
argi-izpizko olatu gaiñean  
esku zurbillok korapilloturik,  
agur-agurka goakioz goian.

Esi ezeak argi-urtika dagoz,  
ler-eztandaz lili-aien biziak.  
Geunkan oro ez al dozu esana?  
Len illa be barriro biztu da.  
Damuz, gaitza egin ebenak,  
iruntz-istatan dabez niniak.  
Alkarri erantzun bearrean,  
adi, arren, itz ausi erdiak.

Zerorrek be euri gozatsua dozu  
begien ertzean jario eder.  
Barruan min dozu, samin gazi,  
otzak ezpaitau sortzen zotínik.  
Guzur zintzillak eztau begirik  
damu-intz gozotan iñoz ler-azi.